

## PRENTSA OHARRA, ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2016

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den urriaren 26an Etxepare Euskal Institutuaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2016ko ekitaldiari buruzkoa.

2016ko **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du.

Gainera, Etxeparek zuzentasunez bete duela 2016ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia ondorioztatu du, nahiz langile gastuetarako bereizitako aurrekontuko diru-izendapena gainditu den.